TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

PLEGU TEKNIKOAK

KONTRATUAREN XEDEA:

Kontratuaren zuzeneko xedea da Tolosaldeko mankomunitatearen bulegoak garbitzeko zerbitzua ematea da.

2.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Esleipendunak ondorengo garbiketa zerbitzuak egin beharko ditu:

a) Lan ordutegia eta egutegia

Lanak, arratsaldez egingo dira normalean astearte eta ostiraletan, gutxieneko eguneko 2 orduz, eta goizez ere egin daitezke. Lanegunak eta lanorduak gehitu ahal izango dira, zerbitzuaren beharren arabera.

Urteko gehieneko ordu kopuru osoa 208 ordukoa da. Zenbateko horretan sartzen dira zerbitzuaren behar guztiak.

Baldin eta jarduera jakin batzuk garatzearen ondorioz, instalazioek arreta berezia behar badute, aldatu egingo da ezarritako garbiketa plana, eskatutako gunearen garbiketa bermatzeko eskatuz. Kasu honetan, unean uneko beharren arabera, Mankomunitateko arduradunak, hamabi ordu lehenago gutxienez, egin beharreko garbiketetan berauen aldaketa koiunturala jakinarazi ahalko dio enpresa esleipendunari.

b) Zerbitzua emateko lekua

Lanen xede diren bulegoak, Alegiko Bazurka industria guneko 50 zenbakiko pabilioiaren behean eta solairuartean egokitutako bulegoak dira.

c) Mantenuko garbiketa:

Aipatutako bulegoen garbiketa osoa gune mota desberdinetara zabalduko da, alegia, bulegoak, bilera gela, artxiboa, komunak, pasiloa, eskailera, harrera gunea etabar.

Kontratuaren xede den garbiketa, lehen aipatutako gune bakoitza osatzen duten elementu bakoitzaren arabera egingo da. Oinarrizko elementu osagarriak, beste batzuk egotearen kalterik gabe, zeinetan kontratistak lan egin beharko duen, ondorengoak dira:

- Altzariak
- Konketak
- Paretak
- Elementu apaingarriak
- Sabaiak
- Pertsianak
- Paperontzi eta edukiontzietatik papera eta zaborra erretiratzea

- Argi puntuak
- Komunak
- Eskaileretako karelak
- Alfonbrak eta moketak
- Zokaloak
- Eskudelak

Esleipendunak egin beharreko lanak eta beren maiztasuna honako hauek dira.

1.- Ohiko garbiketa

- Lurrak garbitzea
- Altzariei hautsa kentzea
- Paperontziak hustutzea
- Premia duten zoru, eskailera, Karel eta pasillo eta altzariak fregatzea.
- Komunak fregatzea: zoruak, komun ontziak, konketak, osagarriak etabar eta horiek desinfektatzea.

2.- Hiruhileroko garbiketa:

- Ateak eta markoak garbitzea.
- Kristalak, markoak, leihoak eta pertsianak.
- Entxufeak
- Altzariak, argi etengailuak eta erradiadoreak sakon garbitu, dauden tokian daudela.

3.- EGITEN DIREN LANEN LIKIDAZIOA

Gune bakoitzerako ordutegiei dagokionez aurreikusten den programazioa gorabehera, eta are mankomunitateak agintzen dituen aldaketak edo ematen dituen aginduak gorabehera, esleipendunak egin egiten dituen lanak bakarrik likidatuko eta ordainduko dira kontratu honen esparruan, eta esleipendunaren kontu eta arriskura izango da agintzen zaizkion lanak egitea galarazten dion halabehar oro.

Oso osorik esleipendunari egozteko moduko halabehartzat hartuko da haren ardurapeko langileek nolanahiko lizentzia edo baimenez gozatzea edo langileren bat lanean ez dagoenean ordezkorik ez jartzea; kasu horietan, lana ezingo da egin, eta, beraz, ezingo da likidatu ez fakturatu.

4.- MATERIALA ETA MAKINARIA

Kontratua gauzatzeko erabiliko den garbiketa materiala eta makinaria esleipendunaren kontura izango dira.

5.- ARROPAK

Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzera adskribatutako enpresako langileek uniformatuta egon beharko dute kolore bereko praka, jakatxo eta batak jantzita, eta oinetako egokiekin ere bai. Uniformea kasu bakoitzean dagokion urte sasoirako egokia izango da eta itxurazkoa izan beharko du.

6.- INGURUMENA ERRESPETATZEN DUTEN JARDUNBIDEAK

Esleipendunak, lanean Osasuna babestu eta zerbitzuarekin zerikusia duten ingurumena zaintzeko lan prozedurak eta jarraibideak ere eduki beharko ditu.

Produktuak:

Debekatuta dago hauek erabiltzea:
- Aire gozagarriak
- Komunetako pastilla edo substantzia perfumatuak
- Spray produktuak.

Granelean edo ahalik eta ontzi gutxienarekin jardungo dira, hala nola berrerabiltzeko ontziak erabiliz.
Materiala eta makinaria, nagusiki ura eta energiaren kontsumo gutxikoak izango dira.

7.- EUSKARAREN KOMUNIKAZIOA

Lan jarduna burutzeak erabiltzailek edo hirugarren batzuek idatzizko edozein mezuen bitartez informatzea ekarriko balu, mezu hori euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko da, euskarari lehentasuna emanez.

Enpresak mankomunitateari eman behar dizkion dokumentazio eta agiriak (lan memoriak, txostenak, fakturak …) euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez.